

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTURA ZIBILA

Euskal Herriko arkitektura zibilaren izaera, deskripzioa, garapena, eta berezitasunak ezagutu nahi izan ezkerro, nahiko bibliografia aurkitu daiteke gaur egun gure artean. Baina ez da hau monigrafikotxo hau egiterakoan neukan asmoa. Ez eta gure historian zehar Euskal Herriak sortu dituen eraikin zibilen ikerketa sistematiko edo bilduma bat eskaintzea ere. Hona begira ditzakegunak:

- **Baserriak:** Antzina harrizkoak, zurezkoak, bilbadura-dunak; gero, XVI. mendeko lehengo hamarkadetan, garapen ikusgarri baten ondoren, gure arkudun baserri barroko aberatsa, harria adreiluarekin eta egurrarekin erraz konbinatzen zituena.
- **Errenazimentuko garapena,** askotariko jauregien eraikuntza, harria besterik erabiltzen ez zutelarik itxiturak eta euskarriak egiteko.
- **XV. eta XVI. mendekak,** euskal arkitektura mundu zabalera begiratu eta berarekin bat egiten saiatu zenekoak.
- **Gotikoa,** gure herrialdean indar handiarekin finkatu zenekoa.
- **Neoklasizismoa,** XVIII. mendean, bai eraikuntza kultuan bai herrikoian teknika eta tresneriaren ezaguera sakonduz eta arrazionaltasun handiagorekin erabiliz sortu zen joera.

- **XIX. mendearen** bukaera aldera gertatu zen aldaketa sakona, garaiko joera eta ikusmolde arkitektonikoak –eta baita urbanistikoak ere– bereganatzen zituena.
- **Art Nouveau, Modernismoa**, erreboluzio industrialetik burdina eta kristala erantsiz, naturan bilatutako forma organiko, forma kurboak irudikatzen dituen arte aske, libre probokatzaille eta modernoak.
- **XX. mendearen** hasieran arrazionalismotik sortutako arkitektura joera modernista, forma geometriko soila-goekin espazio arkitektonikoa era dinamikoagoan erakitzen zuena.
- **Arkitektura modernoa**, XX. mendeak arkitekturari, arte modernoaren joerak (kubismoa, espresionismoa, neoplastizismoa, futurismoa, ea.) bereganatuz, material (altzairua eta hormigoia) eta teknologia berriak erabiliz eman dion iraultza nabarmena.

Bada, horrelako azterketa zientifiko, historiko, arkitektoniko artistiko bat egin beharrean, arrano begirale bat izango banintz bezala, Euskal Herriko zeruetatik zehar hainbat hegalditxo egin eta nire begirada zorrotzak bat-bateko aukera espontaneoan topo egiten zuen hainbat eraikinetan solasalditxo bat egitea erabaki nuen.


Eraikina aukeratu, gainbehera bizian hegaldia eraikin horietako batera zuzendu, han jarri, ikuskatu eta lumatxo birsortzen saiatu naiz. Hona, bada, nire hegaldi turistiko, arkitektoniko horien emaitza: arkitektura zibilar buruzko sortatxo hau.

Juan Mari Arrizabalaga




1. Kasino Handia. Donostia

47 Eklektizismo kutsuko “eraikin arina eta malgua; ikusleentzako erakargarria, aisiarako egokia eta eroso”. 1882an kasino izateko eraikia eta 1945ean udaletxe bihurtua.



2. Lizarraga Jauregia. Zalduondo

Arabako errenazimentuko arkitekturaren eredu bat da, ekialdeko kanpoalde harrigarri bat bereizten dela. “Gizonen jauregia” deritzona, armarri erraldoi bat eusten duten bi gizonetzko estatuak direla medio.




3. Miramarko errege Jauregia. Donostia

47 XIX. mende hasierako ingeles basetxeen eredura eraikia, “Ana erreginaren estiloa”ren eredura hain zuzen, ezaugarri gotiko ugarirekin.




4. Udaletxeko arkupea. Balmaseda

Udaletxearen zutabezko portiko hedatu eta ikusgarria, mudejarren antzekoa denez Balmasedako Mezkita lez eza-guna. Bost tarte eta sei hormartez osatua, arkupe deigarri bat agertzen zaigu.




5. Valdespina jauregia. Ermua

Jauregi barrokoa, antzinako gotiko eta errenazentistak gainditu eta gero, estilo berriari ongietorria emateko hala dekorazio nola estruktura arloan. Elizako eta jauregiko kupulak dira nortasun agiriak, berdintsu eta osagarriak direnez.




6. Floreaga etxea. Azkoitia

Estilo mudejarreko jauregia, 1514an hasi ziren eraikitzen. Aurreko aldean hiru galeria ageri dira bata bestearen gainean jarriak, eta itxura oso berezi eta ezohikoa ematen diote eraikinari. Adreiluz egindako apaindura deigarriak nabarmentzen dira.




7. Pabeko gaztelua

Erdi Aroko gaztelu hau Nafarroako erregeen egoitza izan zen. Bertan jaio zen Enrike III.a Nafarren erregea -eta Frantziako IV.a- “Errege zintzoa”.



8. Eskibel jauregia. Gasteiz

Errenazimentuko jauregiaren adibide garbiena da hirian, apaingarrietan eta arkitekturari dagokionez. Arkuteri bikoitza etxartea eta eskailera nabarmentzekoak, biak Berpizkunde garaikoak.




9. Udaletxea. Leiza

Udaletxea (1915) bere izaera monumentalagatik nabarmentzen da. Bertako harri gris-urdin tipikoaz egina, estilo soilekoa eta behean pilareetan bermatzen diren erdi-puntuko bederatziko arkupea osatutako arkupea.




10. Bellas Artes antzokia. Donostia

Eraikin bitxia, eklektizismoaren emaitza. Bi sakontasun perspektiba azaltzen ditu kale bakoitzaren arabera. Ondasun arkitektonikoarekin egin behar ez denaren eredua dugu Bellas Artesen kudeaketa.



11. Alhondiga. Bilbo

1909an eraikia, eraikin baten ideia berri baten baieztapena izan zen, bai ezarkuntza aldetik eta baita eraikuntza aldetik ere. Denbora luzean itxita egon eta gero, kultura-gune bihurtzeko Oteizaren proiektua eragotzi eta gero, 2010ean herritar zentro balio askotako bilakatu zen.



12. Espiritu Sainduaren zubia. Baiona

Izen berdineko Espiritu Saindua auzoa eta Baiona Ttipia elkarlotzen ditu. Hartz egina da eta 259 metro luze ditu, 32 arku edo zubibegiz osatua dago. Jada Erdi Aroan, 1139tik egurrezkoa, 1791n hartz eta gaur egungoa XIX. mendaren erdialdekoa da.